

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	FARMAZIAKO PRODUKTUAK ETA ANTZEKOAK EGITEKO PISAKETA-ERAGIKETAK	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0439		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Farmakokimika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Farmaziako produktuen eta antzekoen prestaketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Materialen banaketa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Materialak higiene- eta segurtasun-kondizio optimoetan banatzeko ekipoak eta instalazioak prestatzea	Iraupena	60
	Sailkapena eta erregistroa farmaziako produktuak eta antzekoak egitean higiene- eta segurtasun-kondizio optimoetan		60

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0049_2 EKOIZPEN-PROZESURAKO MATERIALAK BANATZEA gaitasun-ataleko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Pisaketa egiteko behar diren tresnak eta ontziak prestatzea.

- EI1.1 Erabili beharreko tresnak eta ontziak identifikatzea.
- EI1.2 Erabili beharreko tresnak eta ontziak egoera onean kontserbatzen eta garbitzen direla bermatzea.
- EI1.3 Tresnak eta ontziak erabiltzeko modua deskribatzea.
- EI1.4 Dosifikazio-tresnak eta -ontziak erabiltzea.
- EI1.5 Tresna eta ontzien garbiketa- eta erabilera-egoera identifikatzea.
- EI1.6 Erabilitako tresnak eta ontziak garbietatik behar bezala bereiztea.

A2: Ekoizpenerako materialak indarrean dauden prozeduren arabera jasotzea eta egiaztatzea.

- EI2.1 Ekoizpen-materialen harrerarekin lotutako dokumentu guztiak identifikatzea.
- EI2.2 Prozedurak berrikusteko eta onartzeko egoera lokalizatzea eta egiaztatzea.
- EI2.3 Materialak behar bezala etiketatuta daudela egiaztatzea.
- EI2.4 Materialaren egoera etiketatutako ageri diren datuen arabera identifikatzea.
- EI2.5 Jasotako materialaren informazioa ezarritako prozedurei jarraituz dagokion euskarrian erregistratzea.

A3: Pisatzeko eragiketak egitea.

- EI3.1 Pisatzeko eragiketaren oinarriak aipatzea (tara, pisu gordina, pisu garbia, kalibrazioa eta abar).
- EI3.2 Pisaketa-ekipo motak deskribatzea (baskulak, balantzak eta mikrobalantzak).
- EI3.3 Ingurumeneko operazio-kondizioak produktuaren arabera bereiztea (tenperatura eta hezetasuna).
- EI3.4 Pisaketan gerta daitezkeen kutsadura gurutzatuko iturriak identifikatzea eta prebenitzea.
- EI3.5 Zenbait pisaketa egitea, produktu-mota desberdinekin.
- EI3.6 Pisaketa bat egitean, hau hartzen da kontuan:
 - Neurketa-unitateak.
 - Ontzien tara.
 - Ekipoen kalibrazioa.
 - Balantza-mota.
 - Pisatu beharreko materialaren identifikazio zuzena.
 - Ordena eta garbiketa.

EI3.7 Anomaliak/desadostasunak hautematea, eta pertsona egokiari une egokian jakinaraztea.

A4: Material fluidoak banatzeko eragiketak egitea.

- EI4.1 Likidoak eta gasak banatzeko ekipo-motak deskribatzea.
- EI4.2 Banaketa-ekipoak produktuaren arabera egokiak diren edo ez bereiztea.
- EI4.3 Banaketa-eragiketak egitea, produktu-mota desberdinekin.
- EI4.4 Banaketa bat egitean, hau hartzen da kontuan:
 - Neurketa-unitateak.

- Ekipoen kalibrazioa.
- Banaketa-ekipo mota eta haren errorea.
- Banatu beharreko materialaren identifikazio zuzena.
- Ordena eta garbiketa.

EI4.5 Anomaliak/desadostasunak hautematea, eta pertsona egokiari une egokian jakinaraztea.

Edukiak

1. Materialak banatzeko prozesuan erabiltzen diren tresnak eta ontziak

- Mugitzeko eta garraiatzeko elementuak: Orga. Transpaleta. Polipastoa, eta abar.
- Pisaketa egiteko tresna osagarriak: Palak. Espatulak. Kazoak eta abar.
- Pisaketa egiteko ontzi osagarriak: Probetak. Ontzi graduatuak, eta abar.
- Produktua biltegitatzeko ontziak eta haiek zigilatze sistema:
 - Plastikozko poltsak.
 - Plastikozko bidoiak.
 - Aluminiozko bidoiak eta abar.

2. Ekoizpenerako materialen identifikazioa eta etiketatzea

- Etiketak:
 - Etiketa-motak.
 - Etiketatako oinarritzko informazioa:
 - Materialaren izena. Materialaren kodea. Konposizioa.
 - Arriskuen identifikazioa (piktogramak eta R esaldiak). Prebentzio-neurrien identifikazioa (piktogramak eta S esaldiak). Pisu gordina, pisu garbia eta tara. Lote-zenbakia. Beste batzuk.
- Materialak identifikatzeko sistemak:
 - Europako Batasuneko etiketatze-kodeak.
 - NFPA. GHS. REACH.
 - Barra-kodeak eta etiketatze beste sistema elektronikoko batzuk.
 - Materialaren egoerak: koarentena, onartua, errefusatua, laginak hartuta eta abar.

3. Materialak pisatzeko eragiketak

- Pisaketa egiteko kondizio egokiak jakitea (tenperatura, hezetasuna eta presioa).
- Pisaketa egiteko oinarriak: Tara. Pisu gordina. Pisu garbia. Egonkortzea. Kalibrazioa/mantentze-lanak.
- Pisaketaren zehaztasuna.
- Material pisatuaren identifikazioa.
- Pisaketaren erregistroa.
- Anomalien/desadostasunen identifikazioa.

4. Material fluidoak banatzeko eragiketak

- Bolumena neurtzeko oinarriak:
 - Emaria eta dentsitatea.
 - Tenperaturaren eragina.
 - Solidoen eta likidoen banaketako zehaztasuna.
 - Errore-iturriak.
 - Ekipo nagusiak.
 - Kalibrazioa eta mantentze-lanak.
- Material banatuaren identifikazioa.
- Banaketaren erregistroa.
- Anomalien/desadostasunen identifikazioa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gaitua izan behar du UF0438: Materialak higie- eta segurtasun-kondizio optimoetan banatzeko ekipoak eta instalazioak prestatzea

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Farmaziako produktuen eta antzekoen prestatzea.